

## 2015 urteari bukaera emateko hainbat ekintza elkartearen eskutik

### GEURE KOLKOTIK 2015

Azaroaren 12an aurkeztu zen Geure Kolkotik 2015 diskoa. *Laja*, *Martin*, *Tapia* eta *Zabale* soinu-jotzaileek hiruna pieza grabatu dituzte diskoan. Mikel Alustiza, *Leturia*, *Motriku*, Imanol Urkizu, Lurdes Alkorta eta Idurre Arriola laguntzaile izan dituzte beren lanean. Ohiko dendetan eta [trikitixa.net](http://trikitixa.net) webgunean egongo da diskoa salgai.



Andatza Erromeri Elkarteak antolatu zuen jaialdi berezia izan zen. Parte hartzaileak *Epelde* eta *Lutxurdio*; Xabi Etxaniz eta Ainara; Kristina eta Xabi Solano eta Ion Mari Beasain; Agurtzane eta Ion Elustondo eta azkenik Maixa, Irati Gutierrez eta *Izer* izan ziren. Bertaratutako ikusle eta dantzariak erromeri giro paregabeaz gozatu ahal izan zuten.

### URTE BUKAERAKO BAZKIDEEEN BAZKARIA

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere urte bukaerako hitzordua jarri du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Iaz bezala bazkaria egingo da, aurten Gabiriako Korta jatetxean abenduaren 27an. Bazkarirako izena emateko: idatzi [trikitixa@trikitixa.net](mailto:trikitixa@trikitixa.net) helbidera edo deitu 943 83 28 28 telefonora. Izen emateko azken eguna abenduaren 22a izango da.

### “ARIZTERRAZU, MANDIOKO (AZKEN) ERROMERIA” LIBURU DISKOA ESKURAGARRI



Argazkia: Ibon Errazu

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak “Arizterrazu, mandioko (azken) erromeria” liburu -diskoaren aurkezpena egin zuen urriaren 25ean, Arizterrazun bertan. Aurkezpenaren ondoren, bazkari jendetsua izan zen frontoian eta arratsaldean

### GEURE KOLKOTIK DISKOETAKO ZENBAKIZKO PARTITURAK WEBGUNEAN ESKURAGARRI

Geure Kolkotik guztietatik 6 kantu aukeratuta zenbakizko partiturak egin dira eta urte bukaeran zintzilikatuko dira [trikitixa.net](http://trikitixa.net) webgunean. GK2010etik Kristina Solanoren “Altxorraren bila” eta *Izerren* “Iñaki Kanua”, GK2011tik Iker Goenagaren “Eskuhotz” eta *Epelderen* “Martittekko usaia”, GK2012tik Oskar Estangaren “Denboraren bila”, eta GK2013tik Alaitz Telletxearen “Musika Bihotzean”.

Geure Kolkotik 2015 diskoaren solfeozko partiturak igoko dira baita ere webgunera urte honen bukaeran edo hurrengoaren hasieran.

## EUSKAL HERRIKO TRIKITILARI GAZTEEN XXIV. TXAPELKETA ZALDIBARREN

Azaroaren 29an, Olazar pilotalekuan ospatu zen Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketako finala. Pasa den urteetan ez bezala, aurtengoan ez da kanporaketarik izan, 8 bikotek eman baitzuten izena eta zuzenean finala jokatu zen.

Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe, Ainhoa Telletxea eta Martxel Larraza, Naiara Mantzidor eta Jugatz Oleaga, Andoni Orue-sagasti eta Uxue Kerejeta, Izaro Oleaga eta Jurgi Ituarte, Maite Txapartegi eta Ane Zulaika, Aitor Uzkudun eta Naikari Urdalleta eta Jone Urbieta eta Izaro Lestaio izan ziren parte hartzaileak. Denek 4 pieza jo behar izan zituzten: Bizkaiko trikitixa, porrusalda, Jose Mari Iriondok egindako "Lastur" fandangoa eta azkenik arin arina. Denek lan bikaina egin bazuten ere, txapela Naiara Mantzidor eta Jugatz Oleagarentzat izan zen.



## NAFARROAKO II. TRIKITI JAIALDIA

Urtarrilaren 16an ospatuko da Nafarroako II. Trikiti jaialdia. Pasa den urtean Altsasun izan bazen ere, II. jaialdi hau Lesakako Harriondoa Kultur etxean izanen da arratsaldeko 17:30etan. Hauek izango dira parte hartzaileak:

- Iñaki Mendinueta eta Irune Agirre
- Kristina eta Amaia
- *Epelde* eta *Lutxurdio*
- Agus Barandiaran (Korrontzi) eta Xabier Berasaluze *Leturia*
- Eburne Iturbe eta Oihana Irastorza
- Jon Ostolaza eta Arno
- Gari eta Iñaki

Jaialdirako sarrerak (12€) [nafarroakotrikitixaelkar-tea@gmail.com](mailto:nafarroakotrikitixaelkar-tea@gmail.com) helbidean erreserbatu daitezke, eta egunean bertan jaialdia hasi baino ordu bat lehenago Harriondoako leihatilan ere egongo dira salgai. Ondoren afaria izango da Koxkonta jatetxean (20 €).

## OÑATIKO VII. TRIKITI JAIALDIA.



Urriaren 17an, Santa Ana antzokian, Lizargarate trikitizale elkarteak antolatutako Oñatiko VII. Trikiti jaialdia ospatu zen. Ane, Amaia eta Irati; *Epelde* eta *Lutxurdio*; Korrontzi; Xabi Arakama, Eneko Dorronsoro eta Iban Larreburu; Mirari Azkune eta Zaloe Zenarruzabeitia; Intxausti anai arrebak eta Har-kaitz Allur eta azkenik Astiasaran, Andonegi eta Mikel Markez arduratu ziren bertaratutakoen belarriak goxatzeaz. Ondoren afaria izan zen Gaztelekuan Elustondo anai arrebek alaitua.

## BI SOINUJOLEREN AGURRA

### • Guillermo Aldalur *Pikua*

Irailaren 1ean zendu zen Guillermo Aldalur soinu jotzailea 82 urterekin. *Pikua* izengoitiarekin ezaguna, Azkoitiko *Pikua* tabernan jaioa, erromeria, festa, ezkontza eta dantzaldi askotan jo izan zuena. Azkoitiarra izanagatik, bizitzaren zati handiena Goierrin egin zuen. Pepita Izagirre gabiriarrarekin ezkondu, eta Legazpin bizi izan ziren urte askotan. Soinu jotzen Pedro Elortzarekin (koinatua zuen), ikasi zuen Azkoitian. Haren bidez hasi zen erromerietan jotzen. Loiola irratian soinua berari grabatu zioten, lehenengo aldiz, 1961ean.

### • Tomas Zubizarreta *Zendoia*

Tomas Zubizarreta *Zendoia* trikitilari azkoitiarra hil zen irailaren 25ean, 84 urte zituela. Martirieta auzoan sortu zen, eta hantxe ikasi zuen trikitia jotzen. Hainbat panderojole ere izan ditu lagun; bere bi anaiak, *Landakanda*, Luis Alberdi *Zabale*, *Iturbide*, Izerreko Manolo etab. Laxaro Azkune azpeitiarrak haren biografia edo soinu-jole bizitzaren arrastoak bildu zituen: "Zendoia, pozaren mezularia" liburua. Bertan dioen bezala "Gizon atsegina traturako, hurbila, apala, harrokeria gutxikoa, planta abegikorrekkoa, irribarretsua, atsegina, isil samarra, jendea pozten bizitza pasa duena..." Joan den urtean, berriz, omenaldia egin zitzaion San Josetako trikiti jaialdian, Azpeitian. Irailaren 28an, Azkoitiko parrokiaren izen hiletan elizkizuna eta hainbat soinu-jolek trikiti doinuekin agurtu zuten.



## MIREN, AGURTZANE eta OIER: Ametsak margotuz

2004an ezagutu ziren Miren eta Agurtzane eta geroztik herriz herri ibili dira trikiti eta pandero jotzen. Aspalditik zeukaten pieza batzuk grabatzeko gogo eta unea iritsi da. Maketa honekin urte hauetan edozertan laguntzeko ondoan izan dituzten lagunei eskertzeko aprobetxatu nahi izan dute. Guztira 12 abesti daude, batzuk doinu berriak dira eta besteak herrikoiak eta Gabonetarako prest izango da. Diskoa eskuratzeko beraiekin harremanetan jarri behar da. Bestela, Aristerrazun eta Oñatiko taberna batzuetan ere eros daitezke.

Abestien hitzak jartzen Eugenio Gisasola *Lutxurdixo*, Aitziber Otegi, Maider Osa, Iker Zubeldia, Gorka Maiztegi, Iñaki Olalde eta Andoni Goitia aritu dira. Hauetaz gain, Harkaitz Allur, Gorka Maiztegi, Ezozki Soba, Aintzane Bergara eta Iñigo Ugartek ere parte hartu dute diskoan.



## ESNE BELTZA: Esna

"Esna gauden artean ametsek zentzua izango dute". Disko berria azaroaren 19an aurkeztu zuten Vitoria Eugenia antzokian. ESNA proiektua, Esne Beltza taldearen 5. estudioko lana da. Proiektu hau bi diskok osatzen dute baina lehenengo diskoa eta bi diskoak bilduko dituen Digi Pack-a plazaratuko dira aurtengo Durangoko Azokan. Bigarren diskoa aldiz, 2016ko maiatzean kaleratuko da. Lehen disko honek 8 abesti eta maila handiko kolaborazioak jasotzen ditu: *El Canilo de Jerez*, *Ander Green Valley*, *Ruben La Pegatina*, ZOO, Rude... Luis Toledo diseinatzailerak egin du proiektu honetarako diseinua eta ederki jasotzen du Esne Beltza taldearen disko honetako musikaren espiritua.

## KORRONTZI: "Korrontzi dantzan" CD-DVDa

Azaroaren 18an kaleratu zen "Korrontzi Dantzan" CD-DVDa. Azken urteetan hainbat dantzari ospetsuk egin dizkie koreografiak Korrontzi taldearen abestiei. Korrontziren musikarekin sortu diren dantzak dira lan honen ildoak. Hainbat Koreografo eta dantzarik parte hartu dute; hala nola, Edu Muruamendiaraz, Jon Maia, Igor Yebra, Izaskun Iturri, Arkaitz Pascuas & Nagore De Las Cuevas, Oinkari dantza taldea, Eneko Gil Alberdi, Alain Maia, Igor Yebra & Oksana Kucheruk, eta Dantzaire dantza taldea. Musika aldetik, Korrontzi taldeko kideez gain, gonbidatu asko izan dira: Dani Conde, Ibon Koteron, Xabier Berasaluze *Leturia*, Garikoitz Mendizabal, Iker Lope de Bergara, Xabier Zabala eta Iñigo Egia.

CD-DVD hauetan musika eta koreografieez gain, bertan beste atal bat egongo da Izaskun Iturriaren eskutik koreografia batzuk ikasi ahal izateko. Orain aurkepen kontzertuak eta birari ekingo diote.





## Joseba Tapia:

*"Erromeria eta dantzaldi gidatu ugari eginga zara batean eta bestean. Musikak dantzarekin lotura estua du. Haurren kasuan, biak batera lantzeak logikarik baluke?"*

Okerrena da hurrek zuzeneko festak eta dantzaldiak ez dituztela ezagutzen. Horrek musika eskoletako programa barruan egon beharko luke, eta festa horietan egon beharko lukete hurrek. Musika, dantza eta kanta batera doaz. Hiru norabide horiek lotura dute eta elkar elikatzen dute. Tresna bat ikasteko garaian elkarrekin egon behar lukete. Dagokion testuinguruan errazago, motibatuago transmititzen da musika. Hurrek aurrez aurre ikusi, entzun, gozatu behar dute, bai erromerietan, kontzertuetan, festetan... Jotzen ari denaren gozamina, dantzan ari denaren plazera... Begira dagoena kutsatu egiten da. Baina agian gurasook ez dugu nahi gure haurrak musikarekin gehiegi kutsatzea ere!

Hik Hasi aldizkaria. 2015-09-29

## Joxemari Iriondo:

*Ohitura zaharrak jarraipena izateko ezinbestekoak dira dantzariak, musikariak eta dirua...*

Han frontoia dago, baina ez dago festa handi bat egiteko aukera. Eguraldiak ere asko baldintzatzen du. Baina igandero-igandero egiten den erromeria egiteko borondate handia dago han. Andatza Erromeri Elkarteak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak prest daude lana egiteko, eta lan ikaragarria egiten dute. Hiru lagun daude Andatzako elkarteetan. Horiek sasoiko daude oraindik, baina uzten dutenean, jarraipena izan dezaten, testigua norbaiti pasa beharko diete. Nik uste dut gazteak direla erromeriararen usadioari etsi behar dietenak.

Karkara aldizkaria. 2015-10-27

## Xabi Solano:

*Trikitixa jotzen ikusten zaitugu gaur egun, baina nola murgiltzen zara musika munduan?*

9 urte nazkala Ereñozun bazegoen holako mugimendu bat akordeoia jotzeko, soinu handia. Baina aitak esan zian ea trikitixa ikasi nahi nuen, bera gaztetan ibiltzen zen han trikitixa jotzen zuen batekin eta oso zalea bihurtu zen nire aita soinu horrengan. Egun batean ekarri zian trikitixa, ez nekien zer zen ere, baina gainean jarri nuen eta asko gustatu zitzaidan. Gainera igande batean Aia San Pedrorra eraman ninduen soina eta trikitilariak ikusteko eta asko gustatu zitzaidan. Aita gustura daukat, orain rock estilo hau etzaio gehiegi gustatzen eta beti esaten dit ea trikitixa tradizionala noiz atera behar dudana. (...) Orain dela urte batzuk rocka asko entzun da, eta gaur egun ikusten da estilo ezberdinak indartzen ari direla, bai reggea, bai ska, bai elektronikoa...ona da, nire ustez horrek denak ongi etorria izan behar du. (...) Trikitixarekin Euskal Herriko kanpora ateratzen garenean, harriz gertatzen da jendea holako kaja txiki batek zenbat hots ateratzen dituen, eta holako instrumentuarekin euskaldunok ze joera daukagun festarako eta ambiente ona jartzeko.

Hamaika Telebista. 2015eko iraila.

## Julen Alonso soinu-jolea Olatz Zugastiren proiektu berrian

Olatz Zugasti arpa-joleak "Ur goiena ur barrena" bere laugarren diskoa kaleratu du. Bertan parte hartu du Orioko Julen Alonso soinu-joleak beste hainbat musikarierekin batean; besteak beste, Johannes Ederra baxu-jolea, Ander Ederra kitar-jolea eta David Gorospe bateri-jolea.

## Nazioarteko Trikitixa jaialdia 2015

Azaroaren 28an Nazioarteko Trikitixa Jaialdia ospatu zen Getxon. Aurtengoan Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko ordezkariak aritu ziren taula gainean. Besteak beste Zango taldea (Bizkaiko Trikitixa Elkarteak antolatutako maketa lehiaketaren irabazlea), Zabaleta & Motriku bikotea, La Tupina eta La Estatalá taldeak jo zuten. Jaialdiaren ondoren Oxabi erromeri taldeak alaitu zuen gaua.

## Euskal Herriko Trikitixa elkartearen Durangoko azokan

Azken urteetan bezala, aurten ere Durangoko azokan egon da Trikitixa Elkartearen 50. edizio honetan, elkartearen azken urteetako produktio guztiarekin batera, Aristerrazu liburu-diskoa, GK 2015 eta urte berrirako prestatutako egutegia ere eskuragarri izan dira.

## Gose

"Gose IIIII" Diskoak Los Angeleseko ACADEMY MUSIC AWARDS disko onenaren saria jaso du. Zorionak!

## Amaia Apaolazari omenaldia

Amaia Apaolaza uztailean zendu zen eta berarekin lanean aritutako musikariek omenaldi berezia egin zioten azaroaren 8an Ordizian. Hainbat musikari ezagun igo ziren taula gainera, tartean Tapia eta Leturia, Esne Beltza eta Gose taldeak.